



2021EKO OTSAILAREN 10EKO EBAZPENA

Gasteiz

Gardentasunaren Foru Kontseilu honek aztertu du [REDACTED] k aurkeztutako erreklamazioa (NANA: [REDACTED]; jakinarazpenetarako helbidea: [REDACTED] jakinarazpenak eskueran jartzeko helbide elektronikoa: [REDACTED]).

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Espedientean dagoen dokumentazioaren arabera, [REDACTED] k adierazi du 2020an informazioa eskatu ziola Zerga Ikuskaritzako Zerbitzuari, [REDACTED] sozietate zibilaren (IFK: [REDACTED]) 2017ko lehen seihilekoko BEZaren itzulketaren egoerari buruz, sozietate horren ordezkari denez, eta orain arte ez zaiola eskatutako informazioa eman.

Horretarako, bere gestoriak erreklamatzailerari bidalitako zenbait mezu elektronikoa aurkeztu zituen, bai eta [REDACTED] k, [REDACTED] SCren ordezkari izanik, ogasun erregistroan otsailaren 5ean aurkeztutako idazkia ere.

Bigarrena.- 2020ko abenduaren 11n, erreklamazio bat aurkeztu zion Gardentasunaren Foru Kontseiluari, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean, Arabako Foru Aldundiko Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren informazio faltaren aurka, eskatutako informazioa eskuratzeko asmo inplizituarekin.

OINARRI JURIDIKOAK

1. Erreklamatzailerak egindako eskaerari dagokionez, gaiari sakonki heldu aurretik, aztertu behar da ea eskaerak betetzen dituen erreklamazio hori aurkezteko beharrezko diren betekizunak, zeinak Gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 35.5 artikulua arabera oinarritzeko legerian ezarrita baitaude, hau da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean.
2. Erreklamazioa Arabako Foru Aldundiari aurkeztu zaionez, Gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 20ko 1/2017 Foru Arauaren aplikazio eremu subjektiboan sartzen da.

Bestalde, bat etorri 1/2017 Foru Arauaren lehenengo xedapen gehigarrian eta Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 21eko 5/2017 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, Gardentasunaren



Foru Kontseiluak, zeinari aurkeztu baitzaio erreklamazioa, badu foru erakunde horren gaineko eskumena.

3. Behin egiaztaturik erreklamaturako erakundea Gardentasunaren 1/2017 Foru Arauaren mende dagoela eta Gardentasunaren Foru Kontseiluaren eskumen subjektiboa, egiaztatu behar da ea baden egiaz informazio publikoaren eskaera bat; izan ere, 1/2017 Foru Arauaren eta otsailaren 21eko 5/2017 Dekretuaren arabera, kontseilu horrek ez du eskumenik bestelako auzirik aztertzeko.

Erantzuna ezezkoa da, Ogasun Erregistroan otsailaren 5ean aurkeztutako idazkia ezin baita informazio publikoa eskuratzeko eskaeratzat hartu, Gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauan eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean jasotakoaren arabera.

Izan ere, 19/2013 Legearen lehenengo xedapen gehigarriak («Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: arauketa bereziak») honako hau dio: «Abian den administrazio-prozedura batean interesdun direnek prozedura hori osatzen duten agiriak eskuratzeari aplikatzekoa zaion araudia izango da, hain zuzen, dagokion administrazio-prozedura arautuko duen araudia».

Ondorioz, zerga arloko administrazio prozedura batean interesdun denak administrazio espediente bateko dokumentuak eskuratzeko aplikatu beharreko araudia zerga arlokoa da, eta ez gardentasunekoa.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren Foru Kontseiluak, aho batez, ebazpen hau eman du:

EBAZPENA

Lehenengoa. Ez onartzea [REDACTED]k Gardentasunaren Foru Kontseiluari aurkeztutako erreklamazioa, zeina Zerga Ikuskaritzako Zerbitzuaren jardun faltaren aurkakoa baita, [REDACTED] SC sozietate zibilaren 2017ko lehen seihilekoko BEZaren itzulketaren egoerari buruzko informazioa ez emateagatik

Bigarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.